



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Erika, ez naiz perfektua**

Testua / Texto: **Alfonso Bañeres**

Argazkiak / Fotografías: **Alfredo Piedrafita**

Saila / Colección: Albumak, 16

Adina / Edad: 4-10

ISBN / EAN: 978-84-9109-263-6

Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluido)

Orrri kopurua / N° páginas: 56

Formatua / Formato: 29,7 x 21 cm

Lana / La obra

Inperfekzioaren aldeko manifestu bat da, eta hori adierazteko Eri-karen historia hartu dugu kontagai. Triku eme bat da Erika, hanka bat galdu duena eta horregatik abandonatua izan dena basoaren erdian. Hantxe doa basoan bizi diren pertsonaiak banan-banan ezagutzen, eta ulertuz doa ikasgai bat, inor ez dela perfektua eta nork bere burua den bezalako maitatzen ikasi behar duela.

Omenaldi bat da gure gizarteak apetak emanda bihozgabe eta arduragabeki egunero abandonatzen dituen animalia horiei. Hanka erabat nekrosiak joa zuela abandonatu zuten Erika, baina suertea izan zuen ebakuntza egin ahal izan geniolako eta gure lankide Taniak adoptatu eta mimatu zuelako hil zen arte.

Ipuin hau autoestimuaeren aldeko mezu bat da, haurtzaro deitzen dugun garai magiko baina hauskor hori inork apur ez dezan, ezta perfektu usteko jende horren intolerantziak ere.



Egilea / El autor

Alfonso Bañeres naiz. Durangon jaio nintzen, Bizkaian, 1973an, eta oroimena dudanetik beti gogoratzen dut neure burua animaliez inguratutik. Esan daiteke, beraz, piztiazale amorratua naizela. Albaitaritza ikasi nuen, eta urte askoan ibili nintzen espezie basatiak errekuperatu nahian, animalia exotikoak aztertuz, baina baita txakurrak eta katuak ere. Neure eskuz hazi ditut besteak beste saguzarrak, erbinudeak, leporhoriak, azkonarrak, otsoak, orkatzak, hegazti harrapari pila bat eta igaraba bat Euri izena zuena eta sekula ahaztuko ez dudana. 2012an, Basati Albaitari Elkartearen sortu genuen neure emazte Natik, beste lagun batek eta hirurok, animalia gaiztratatu edo nagusi gabeegi laguntza kliniko eta aditua emateko. Izadia da nire pasioa, eta albaitaritza anestesia da nire lanbidea. 2016an, *Manual Veterinario de las Aves Rapaces* (Hegazti harraparien albaitaritza eskuliburua) izeneko lana argitaratu nuen, eta LLeidan saritu zidaten, Nekazaritzako Sari Nazionala emanda. Ikarakarri gustatzen zait Irati eta Mendia nire bi alabekin siesta egitea eta Tabira gainean parapenten ibiltzea nire Harris arranoarekin.

Alfredo Piedrafita Gómez naiz eta Barbastron (Huesca) jaio nintzen, 1960an. Iruñeak bere magalean hartu ninduen bi urte bete nituenez gero Txantreako auzoan. Bizitza guztian izan dut musika lagun. Hogeita hamar urtez "Barricada" rock taldeko gitarrista eta konpositorea izan nintzen, 24 disko editatu genituen eta ezin konta ahal kontzertu eman genituen espainiar Estatuan zehar. Gaur egun, musikari eta errepideari lotua jarraitzen dut "Miss Octubre" izeneko gure banda berriarekin.

Australiara egindako bidaia batean deskubritu nuen argazkigintza, bereziki izadian egindakoa. Orduz gero, zaila da inon ni ikustea kamerarik gabe edo gitarrarik gabe. 2014an argitaratu nuen nire lehen liburua, *La estación perpetua* (Lamiñarra argitaletxea). Bertan ageri dira aurreko urtean Tindufen, Aljerian, ateratako zenbait argazki, saharar errefuxiatuen kanpamenduetan, haiei laguntzen boluntario ibili bainintzen. Espainiar Estatuko hainbat hiritan egin ditut nire argazkien erakusketak, eta bat aukeratzekotan, Iruñeko Baluartean egin nuena aukeratu nuke. Oraintxe bertan Nafarroako hainbat herritan ari naiz animalien argazkiak erakusten, beste nafar argazkilari batzuekin batera.

